

AUTONOMI-ESKUBIDEAK, NOZKO?

Lan Deya (1977)

Ikurriña agirian erabiltzeko gobernuaren oniritzia, politika-presu guztientzako amnistia, euskeraren ofizialtasuna.

Oneik dira, España'ko oposiziokoak -Arremanetarako eratu dan Batzordearen bidez.- Gobernuari aurkeztu dautsezan puntuak.

Une oneitan, ikurriña noz eta nola erabilli erabagita dago. Espetxeratuak Aberri-Eguna baiño leen etxean izango dirala agindu dabe. Euskera erderaren bardiñean jarriko dan itza emon dauskue.

Baiña, elburu oneik ez dabe ez zentzurik, ez baliorik, autonomi-eskubideak autortzen dauazan demokrazi-erabarritze baten egitarauan sartzen ez ba'dira. Autonomi-girotik kanpora, iñozen engaiñagarri ta iruzur-tresna bakarrik dira; eta Euskalerriko langille ta erri-jendoldearen mugimentuak irabazigura dabez, eta migimentu orreik bide-naastu ta indargetzera datoz.

Eta estatutoa? Eta autonomia? Eta Euskal Gobernu? Eta Batzar Nagusiak? Nozko?

Gaurko gobernuak ez dau -ezta aitatu dogun oposiziñoak bere- arazo au orain erabagi gura. Galdera onein erantzuna auteskundeetatik urtengo dan gobernuaren eskuetan ixten dau.

Onela, luzatzen doia agindu dauskuenaren katea. Ikusi dagigun.

Lenengo, diktadura apurtu arte atzeratu bear ei zan euskal-arazoaren konponketa. Baiña 15 illabete dira Franco il zala.

Gero, aldaketa-aldian, atzeratu egin bear zan euskal-arazoaren azterketa, demokrazirako bide orretan oztoporik ez sortzeko. Baiña, aldi ori amaituten doia.

Orain baztertu egin bear ei da barriz bere euskal-arazoa, arretik auteskunde orokorrak ospatu arte eta "Costituzio" edo Araudi barri bat antolatu arte...

Eta gero? Zer erabagi bearko ote dabe gero, euskal-arazoa barriz bere bazterrean ixteko?